

hezkuntzako laboralak

Ez gara bigarren mailako langileak

Administrazioak **entzun beharko digu, ez diogu beste erremediorik utziko**. Orain arte, paso egin du lan-legepeko irakasle eta hezitzaileez, nahiz eta guk, behin eta berriro, bilerak eskatu. Baina,

- **Guk ere hobetu nahi ditugu gure lan-baldintzak:** lan egiteko ordu kopurua, ordezkoen egoera kaskarra, kategoria batzuen (fisioak, lan-terapeutak...) homologazio falta, baimena eta lizentziak zaharkituak, soldatak gero eta prekarioagoak, profesionalen arteko koordinazio falta...
- **Guk ere baditugu gure eguneroko lanean ematen diren arazoak, gabeziak, hutsuneak...** eta konponbidea eskatzen dugu. Ezin ditugu jasan urtero egoera berdinak.
- **Gu ere Hezkuntza Saileko langileak gara,** nahiz eta kolektibo txikiagokoak izan. Eta beste langileek jasotzen duten arreta berdina merezi dugu. **Ez baikara bigarren mailako langileak!**
- **Guk ere Hezkuntza Publikoaren kalitatearen alde lan egiten dugu,** baina horretarako Administrazioak dagokiona jarri behar du. Ezin da hori ere gure bizkar izan, gaur egun gertatzen den bezala.

Administrazioari esan behar diogu ezin gaituztela aparte utzi. **Orain arte pazientzia handia azaldu**

dugu haien arduragabekeriaren aurrean, baina Administrazioaren erantzun faltak **beste bide bat hartzeko** behartzen gaitu gure errebindikazioak helarazteko.

Hori dela eta, **entzun beharko digu**, ez diogu beste erremediorik utziko.

Horregatik, STEE-EILAS, LAB, ELA eta FETE-UGT sindikatuek egun osoko **GREBAK** antolatzen ditu kolektiboka:

Lan-legepeko Irakaslea bazara:

- Gipuzkoa: **maiatzaren 15ean**
- Araba: **maiatzaren 16an**
- Bizkaia: **maiatzaren 17an**
- EAEn: **maiatzaren 24an**

Hezkuntza Bereziko Hezitzailea bazara (fisioak, logopedak, lan-terapeutak, gizarte-laguntzaileak, zeinu hizkuntza itzultzaileak, material egokitzaile eta transkriptoreak eta hezkuntza laguntzako espezialistak):

- Gipuzkoan, Araban, eta Bizkaian: **maiatzaren 18an**
- Gipuzkoan, Araban, eta Bizkaian: **maiatzaren 24an (Beste sektore guztiekin batera)**

OHARRA: Egun horietan ere kontzentrazioak egingo dira, informa zaitez ★

HLEen EPEa

	Pertsonak	Portzentaiak
Zerbitzu. gehiengoa	179	%100
Gainditu	98	% 54.1
Ez gainditu	25	% 13.9
Ez aurkeztu	56	% 32

Aurreko tauletako datuak ordezkoen zerrendetan zerbitzuetan gehiengoa dutenen arabera kalkulatu daude. Hasteko, nabarmentzekoa den lehen kopurua ez aurkeztutakoena da: %32a!! Beste alde batetik, azterketen emaitzak ikusita ezin dezakegu

Azterketa bien emaitzen batuketa	Zenbat Pertsonak (zerbitzu. gehiengoa)
20-19	0
19-18	0
18-17	0
17-16	7
15,966-15	15
14,967-14	24
13,867-13	20
12,934-12	18
11,966-11	8
10,934	1

esan sekulakoak izan direnik, beraz, berriz ere ez da betetzen Sailak emandako hitza. Azterketak prestatu zituen pertsonalak ziurtatu zigun froga horiek ez zirela izango konplexutasun handikoak, inondik inora

irakasle laboralak hezkuntza laguntzako espezialistak fisioterapeutak logopedak lan-terapeutak transkriptoreak eta materialaren egokitzaileak zeinu hizkuntzako itzultzaileak gizarte laguntzaileak

